

## BELARDIAK

### Ongarritzeko aholkuak eta analisisen interpretazioa (2002ko ekaina)

Lurzoruan zaindu beharreko gutxi gorabeherako balio edo maila optimoak:

	pH	Fosforoa (P), mg/l	Potasioa (K), mg/l
Larratzeko belardiak	6-7,5	16-32	120-240
Mozteko belardiak	6-7,5	20-40	200-300
Artaberdea	6-7,5	26-45	240-300

**Lurzoru azidoen medeapena.**

**Behar den  $\text{CO}_3\text{Ca}$  kantitatea, trukaketa-konplexuko aluminio portzentaiaren arabera**

pH<5.5 bada, laborategian aztertuko da trukaketa-konplexuko aluminio portzentaia (Al%) zenbatekoa den; Al%>5 ateratzen bada, taula honetako aholkuak jarraitu:

Al %	$\text{CO}_3\text{Ca}$ t/ha
Al% <5	0
10> Al% $\geq$ 5	0,5
14> Al% $\geq$ 10	1
21> Al% $\geq$ 14	1,5
26> Al% $\geq$ 21	2
33> Al% $\geq$ 26	2,5
38> Al% $\geq$ 33	3
46> Al% $\geq$ 38	3,5
52> Al% $\geq$ 46	4
59> Al% $\geq$ 52	4,5
Al% >59	5

Iturria: Belardiak ongarritzeko ikastaroa. Francisco Mombiola, 1984.

Kareztatzeko, karea ez ezik, kare hila eta kareharria ere erabil daitezke. Zehazki zer gai erabiliko den, haren neutralizazio ahalmena kontuan hartu behar da. (Ikus ondoko taula). Hektarea bakoitzeko 3.000 kg kare ematea komeni da.

	Neutralizazio ahalmena
Gaia	Baliokidetasuna (CaO %)
Kare bizia, CaO	1
Kare hila, Ca(OH) <sub>2</sub>	0,75
Kareharria, CaCO <sub>3</sub>	0,55

Iturria: *Fertilizantes y Fertilización* (Ongarriak eta ongarritzea), Arnold Finck, 1985. Baliokidetasun hori aldatu egiten da, kareztatzeko gaiaren aberastasunarekin.

Dolomita ere erabil daiteke kareztatzeko (CaCO<sub>3</sub>MgCO<sub>3</sub>).

#### Purinen aberastasuna ongarritarako:

	10.000 litro purinetan dauden ongarrri unitateak					
	Nitrogenoa (N)	Fosforoa (P)	Potasioa (K)	Sufrea (S)	Kaltzioa (Ca)	Magnesioa (Mg)
%6 materia lehorra	26 (15 amoniako moduan)	14	31	5	11	8
%9 materia lehorra	37 (20 amoniako moduan)	19	38	16	36	17

Iturria: EAEko ustialekuetan Neikarrek bildutako datuak.

Purina ematekotan, larratzeko belardietan gehienez urtean 45.000 litro/ha eman, eta mozteko belardietan gehienez urtean 60.000 litro/ha; hortik gora ez.

**Nitrogenoa ematea: gehienez urtean 170 UF/ha emango da.** Lurrean emateko nitrogeno kantitate egokia hektarea bakoitzeko 50 kg-tik 120 kg-ra bitarte da. Nitrogenoa hazkunde garaian eman behar da (negu bukaera-udaberria-uda). Udazkenean ematea ez da komeni, oro har; eguraldi oneko boladetan bakarrik izan ditezke ona, larre belarra hazteko. Nitrogeno mineralaren emanaldi bakoitzeko ez da eman behar 60 kg/ha baino gehiago.

Produkzio ekologikoko ustialekuetan ezin da eman sistesiko ongarririk.

*Iturria: Ministry of Agriculture, Fisheries and Food. Reference Book 209. ADAS. Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Laborategiko Saiakuntzak. Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Institutua, Neiker. Belardiak ongarritzeko ikastaroa. Francisco Mombiela Muruzabal 1.984*